

ERRENTERIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA

JARRAIPEN ADIERAZLEAK KALKULTZEKO IKERKETA, 2018

-AZTERLAN KUANTITATIBOA-

2018ko irailaren 21ean

AURKIBIDEA

A. SARRERA.....	3
B. METODOLOGIA.....	4
C. EMAITZAK	6
1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK.....	7
2. HERRITARREN ARAZOAK.....	11
2.1. ERRENTERIAKO ARAZO NAGUSIA ZEIN DEN.....	12
2.2. PERTSONALKI KEZKA NAGUSIA ZEIN DEN.....	13
3. ERRENTERIAKO TESTUINGURU OROKORRA.....	14
3.1. ASPEKTU EZBERDINEN GAUR EGUNGO EGOERA ETA LEGEGINTZALDIAN IZANDAKO BILAKAERA	15
4. UDAL GOBERNUA: BERE LANAREN BALORAZIOA.....	17
4.1. UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIA.....	19
4.2. HERRITARREK HAINBAT GAIRI ZEIN GARRANTZIA MAILA EMATEN DIOTEN.....	20
4.3. UDAL GOBERNUA GAI HORIETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN.....	22
4.4. GARRANTZIA MAILA vs UDAL GESTIOAREN BALORAZIOA. BATEZ BESTEKOAK.....	24
4.5. UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRI BATZUEN BALORAZIOA.....	25
4.6. UDAL GOBERNUAREN INGURUKO BALORAZIO OROKORRA.....	27
5. UDALAREN PROIEKTU ETA ZERBITZUAK.....	28
5.1. UDALAK AURRERA ERAMANDAKO PROIEKTU EZBERDINEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA.....	29
5.2. HONDAKIN SISTEMAREN INGURUKO IRITZIA.....	33
5.3. UDALAK HERRITARREI ESKAINTZEN DIZKIEN ZERBITZU EZBERDINEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA.....	34
5.4. OROKORREAN ZERBITZU / INSTALAZIOEKIKO HERRITARREN ASEBETETZEA.....	37
6. AKTIBITATE FISIKOA ETA KIROL/KULTUR INSTALAZIOAK.....	38
6.1. UDALAK HERRITARREI ESKAINTZEN DIZKIEN KIROL INSTALAZIO EZBERDINEN EZAGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA.....	39
6.2. UDALAK HERRITARREI ESKAINTZEN DIZKIEN KULTUR INSTALAZIO EZBERDINEN EZAGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA.....	42
7. UDALAREN KOMUNIKAZIOA.....	45
7.1. UDALAK KOMUNIKAZIORAKO ERABILITAKO LELO EZBERDINEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA.....	46

A. SARRERA

Jarraian datorrena Errenteriako Udalaren enkarguz egindako ikerketaren emaitza da, **Errenteriako 2025 Plan Estrategikoaren jarraipen adierazleak neurtzeko**. Ikerketa hau 2018ko ekainaren 21a eta uztailaren 13a bitartean egindako inkesta baten bidez garatu da. Galdetegia Errenteriako Udaleko ordezkariekin adostua izan da.

Aurkezten den txostenak honako egiturari jarraitzen dio:

- Hasteko, ikerketa egiteko erabili den metodologia azaltzen da.
- Ondoren, inkestaren edukietan edota ikerketaren emaitzetan sartzen gara:
 - o Inkestatutako herritarren **aldagai soziodemografikoak** aurkezten dira.
 - o Herriko **egoera orokorraren inguruan** egiten duten balorazioa jasotzen da: Errenterian identifikatzen diren arazo nagusiak eta norbere arazo nagusiak, eta aspektu desberdinen inguruko egungo balorazioa eta azken urteetako bilakaera,
 - o **Udal gobernuaren inguruko hainbat aldagai** aztertzen dira ondoren: Udal gobernuaren eta oposizioaren inguruko iritzia, gai batzuei herritarrek ematen dieten garrantzia eta Udal gobernuaren kudeaketa beren inguruan, Udal gobernuaren ezaugarri batzuen inguruko balorazioa eta bere balorazio orokorra.
 - o Laugarren lekuan, **proiektu eta zerbitzu jakin batzuei** buruz galdetu da: oro har zerbitzu eta instalazioekiko herritarrek duten asebetetze maila, Udalak aurrera eramandako proiektu eta zerbitzu zehatz batzuen inguruko balorazioa, eta konkretuki hondakin sistemaren inguruko iritzia.
 - o Era berean, **aktibitate fisiko eta kirol/kultur instalazioei** buruz zehazki galdetu da: herritarrek egunerokoan duten aktibitate fisiko maila, eta Udalak eskaintzen dituen instalazio desberdinen ezagutza, erabilera eta balorazioa, bai kirol eta baita kultura arloan ere.
 - o Amaitzeko, **komunikazioari** buruzko datu batzuk jaso dira, hain justu, Udalak komunikaziorako erabilitako lelo batzuen ezagutza eta balorazioa aztertzen da.
- Txostena amaitzeko, ondorio orokor batzuk aurkezten dira.

B. METODOLOGIA

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: 18 urtetik gorako Errenteriako herritarrak (**32.650**)

Lagina: 600 herritar.

Landa-lana: 2018ko ekainaren 21a eta uztailaren 13a bitartean. Inkestak euskaraz zein gaztelaniaz egin dira, inkestatuaren nahiaren arabera.

Akats tartea: $\pm\%4,0$ lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan eta $p=q=\%50,0$ denerako.

ERABILITAKO TEKNIKA: Errenteriako herritarrei egindako inkesta egituratua.

UNIBERTSOA: Errenterian bizi diren 18 urtetik gorako herritarrak. Garai honetan, zehazki, adin horretako **32.650** lagun zeuden erroldatuta.

LAGINA: 600 herritar.

LAGINKETA: Lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izan zedin, adina eta sexuaren araberako kuotak erabili dira.

GALDERA-SORTAK: Aztertu nahi ziren gaien inguruko galderekin osatu dugu galdera-sorta, Udaleko ordezkariekin elkarlanean. Elkarrizketa batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egin direnez, bi galdera-sorta izan ditugu, hizkuntza bakoitzean bana.

LANDA-LANA: Inkestak 2018ko ekainaren 21a eta uztailaren 13a bitartean egin da. Oro har, herritarren erantzuna ona izan da.

AKATS TARTEA: $\pm\%4,0$ lagin osoarentzat, **%95,5eko konfiantza mailan** eta $p=q=\%50,0$ denerako.

Inkesta egiteko erabili den metodologia multikanala izan da. Gizartea osatzen duten perfil desberdineko talde bakoitzak ezaugarri jakin batzuk ditu eta, horren arabera, berengana iristeko metodologia egokienak ere aldatu egiten dira.

Hala, ikerketa honetako inkesta bi tekniken bidez egin da:

- **Inkesta telefonikoak** egin dira, bereziki 45 urtetik gorako herritarrei begira.
- **Etkez etxeko inkesta presentzialak** ere egin dira, CAWI teknika erabiliz, 45 urtetik beherako herritarrei begira.

Kronogramari dagokionez, telefono bidezko inkestak egin dira lehenengo, eta behin horiek amaiera aldera zeudela hasi da etkez etxeko landa lana. Horrek ahalbidetu du bigarren fasean artean osatzeko zeuden kuoten arabera orekatzea landa lana.

Guztira, 600 inkesta egin dira adierazitako daten artean. Ondoren, inkesta horiek sexua, adina eta euskara-gaitasunaren arabera haztatu dira.

Inkesten ustiaketari dagokionez, xehetasun tekniko bat adieraztea garrantzitsua da, berkodeetzen harira. Garrantzia-mailak eta balorazioak 0 eta 10 eskalan galdetzen direnean, Aztikerreko sistemarik ohikoena hiru talde "proportzionatu" osatzea izaten da, balio-tarte antzekoa izango dutenak elkarrekiko: 0 eta 3 artean izaten da "balorazio txarra", 4 eta 6 artean "erdipurdikoa" eta 7 eta 10 artean "balorazio ona".

Inkesta honen ustiaketan, baina, taldeak banatzeko modu hori ez da hain argigarria. Hain justu, aldagai gehienetan jaso diren balorazioak 7ko batez bestekotik hurbil dabilta, eta horrek adierazten duen moduan, puntuazioen kopuru oso handi bat "balorazio ona" taldean gelditzen da, eta oso gutxi agertzen dira 0 eta 3 puntuen artean. Horregatik, aztertutako aldagaien arteko desberdintasunak nabaritzeko, txosten honetan balorazio-taldeak mozteko puntuak aldatu dira: balorazio txarra moduan hartu dira 0 eta 5 bitarteko puntuazioak, erdipurdikoak 6 eta 7 puntuak, eta balorazio ona kontsideratu da 8 eta 10 artekoa. Beste erreferentzia-puntuen arabera mozketek sortzen dituzten emaitzak ikusi nahi izanez gero, ikusi taula gurutzatuak.

C. EMAITZAK



1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Inkestatuen artean, emakumezkoek pisu zertxobait handiagoa dute gizonek baino (%51,9 eta %48,1 hurrenez hurren). Adinari dagokionez, inkestatuen %61,2k 45 urtetik gora ditu¹.

Erreterian bizi diren lekuari erreparatuta, inkestatuen ia herena Erdigunean bizi da (%29,3) eta hurrengo bi auzorik aipatuena Galtzarborda (%15,2) eta Beraun dira (%13,4).

Lan egoera da galdetutako beste ezaugarri bat. Ia erdiek lan ordaindua egiten dutela adierazi dute (%46,7k), eta beste herena jubilatua dago edo pentsionista da (%33,3). Hirugarren talde handiena langabetuena da (%8,2). Laugarren lekuan ikasleak daude (%7,9) eta etxeko lanetan dihardutela adierazten dute beste %3,9k.

Euskara gaitasunari dagokionez, talderik handiena euskaraz "ez ulertu eta ez hitz egiten duena" da (%38,6), baina nahiko gertu ditu beste bi aukerak ere: "ondo ulertu eta hitz egiten dute" inkestatuen %31,3k eta elebidun hartzaileak dira (euskaraz ulertu bai) beste %30,1a.


Azkenik, inkestatuaren eta bere gurasoen jatorriari buruz jaso da ea Euskal Herrian edota kanpoan jaioak diren. Konbinazio aukera guztiek nahikotxo presentzia dute. Nagusiak, hala ere, bi muturrak dira: hirurak Euskal Herrian jaio izatea (%37,7) eta hirurak Euskal Herritik kanpo jaioak izatea (%27,4). Aipagarria da gurasoak Euskal Herritik kanpo jaioak dituztela inkesta erantzun dutenetatik %48,7k.

¹ Kontuan hartu behar da aldagai horiek haztatuak daudela; beraz, Erreterriako errealitatearekin guztiz bat egiteko egokituak izan dira.

Sexua


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Emakumezkoa	311	51,9
Gizonezkoa	289	48,1
Guztira	600	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

**Adina**


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
18-29	68	11,3
30-44	165	27,5
45-64	200	33,3
65+	168	28,0
Guztira	600	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

**Euskara gaitasuna**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ondo ulertu eta hitz egin	188	31,3
Ulertu bai, hitz egin nekez	181	30,1
Ez ulertu ez hitz egin	231	38,6
Guztira	600	100,0


Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."



Bizitokia


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Erdigunea	175	29,3
Galtzaraborda	91	15,2
Beraun	80	13,4
Kaputxinoak	43	7,1
Iztietia	39	6,6
Agustinak	36	6,0
Fanderia	29	4,8
Pontika	26	4,4
Gaztaño	18	3,1
Alaberga	18	3,0
Olibet-etxe berriak	15	2,5
Gabirierrota	13	2,1
Zamalbide	10	1,7
Lartzabal	5	0,8
Guztira	599	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

**Lan egoera**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Langilea	274	46,7
Langabetua	48	8,2
Etxeko lanetan	23	3,9
Ikaslea edo ikaslea+lana	46	7,9
Jubilatua / pentsionista	195	33,3
Guztira	586	100,0


Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."



Inkestatua eta gurasoen jaiolekua

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Inkestatua eta bi gurasoak EHan jaiok	226	37,7
Inkestatua eta gurasoetako bat EHan jaiok	72	12,0
Inkestatua EHan jaiok eta gurasoak EHTik kanpo	128	21,3
Inkestatua eta bi gurasoak EHTik kanpo jaiok	165	27,4
Guztira	600	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."



2. HERRITARREN ARAZOAK

Herriko egoera orokorraren balorazioa kokatzeko, lehenengo eta behin galdetu da, modu irekian, ea zeintzuk diren Errenteriako arazo nagusia eta inkestatuaren arazo nagusi pertsonala. Gehien errepikatu diren lehen lau erantzunak berdinak dira, eta hurrenkera berean, bi kasuetan: "aparkaleku falta", "lan merkatuari lotutako arazoak", "trafikoa" eta "delinkuentzia eta segurtasun falta".

Erantzunak modu homogeneoagoan barreituak daude arazo pertsonala adierazten den kasuan (hurrenez hurren, honako ehunekotan adierazten dira: %24,2, %8,8, %8,4 eta %5,1); aldiz, Errenteriako arazo nagusiaz hitz egiterakoan adostasun handiagoa dago "aparkaleku falta" dela iriztean (honakoak dira lehenengo lau erantzunen ehunekoak: %32,9, %12,6, %8,8 eta %5,6).

2.1. ERRENTERIAKO ARAZO NAGUSIA ZEIN DEN

Errenteriako arazo nagusia

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Aparkaleku falta	197	32,9
Lan merkatuari lotutako arazoak	76	12,6
Trafikoa	53	8,8
Delinkuentzia eta segurtasun falta	34	5,6
Immigrazioari lotutako arazoak	25	4,2
Herriaren garbitasuna, kaleen garbitasuna	24	4,0
Etxebizitzari lotutako arazoak	14	2,3
Arazo ekonomikoak, krisia	9	1,5
Azpiegitura eta garraioak	7	1,2
Adineko pertsonen arazoak	5	0,8
Hezkuntza	5	0,8
Gazteria	4	0,7
Ingurumena	4	0,7
Euskal Herriko gatazka eta ondorioak (biktimak, indarkeria mota ezberdinak, presoak...)	3	0,5
Eskaintza kultural txikiegia	3	0,5
Euskara	2	0,3
Emakumeenganako indarkeria	2	0,3
Zerbitzu publikoen hedadura, laguntza sozialak...	1	0,1
Administrazio urrunegia, burokrazia	0	0,0
Beste	86	14,4
ED-EE	47	7,8
Guztira	600	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

2.2. PERTSONALKI KEZKA NAGUSIA ZEIN DEN

Norbere arazo nagusia

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Aparkaleku falta	145	24,2
Lan merkatuari lotutako arazoak	53	8,8
Trafikoa	50	8,4
Delinkuentzia eta segurtasun falta	31	5,1
Herriaren garbitasuna, kaleen garbitasuna	26	4,4
Etxebizitzari lotutako arazoak	19	3,2
Immigrazioari lotutako arazoak	16	2,7
Azpiegitura eta garraioak	16	2,6
Arazo ekonomikoak, krisia	14	2,3
Adineko pertsonen arazoak	7	1,2
Ingurumena	7	1,2
Hezkuntza	6	1,0
Gazteria	6	1,0
Euskara	5	0,8
Emakumeenganako indarkeria	5	0,8
Zerbitzu publikoen hedadura, laguntza sozialak...	4	0,7
Euskal Herriko gatazka eta ondorioak (biktimak, indarkeria mota ezberdinak, presoak...)	2	0,3
Eskaintza kultural txikiegia	2	0,3
Administrazio urrunegia, burokrazia	1	0,2
Beste	105	17,5
ED-EE	79	13,2
Guztira	600	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."


3. ERRENTERIAKO TESTUINGURU OROKORRA

Errenteriako egungo egoera galdetu da, gai desberdinen inguruan. Oro har, balorazioa ona da elementu guztietan: "herriko elkarbizitza", "kulturen arteko elkarbizitza" eta "herriko bizi kalitatea orokorrean" ondo edo oso ondo baloratzen dituzte inkestatuen %80 inguruk kasu bakoitzean. Ondoen baloratzen dena "herriko elkarbizitza" oro har da: %86k hautatu du "ondo" edota "oso ondo"; aldiz, beste bi aldagaietan "erdipurdi" balioak ehuneko handiagoa lortzen du lehenengoarekin alderatuta (%16,7 da azken bien kasuan). "Pobrezian bizi diren herritarrak/familiak" gaiak balorazio eskasagoa jasotzen du (%29k "ondo" eta %43,6k "erdipurdi" aukeratzen du).


Azken lau urteetan gai horiek izan duten bilakaerari erreparatuta, oro har, hobera egin dutelako irudipena orokortzen da. Herritarren artean, "kulturen arteko elkarbizitza" da hobera egin duelako irudipen handiena jasotzen duena (%53,7k uste du hala egin duela), eta oso gertu gelditzen dira elkarrekiko "herriko bizi kalitatea oro har" (%48,4k dio hobera egin duela) eta "herriko elkarbizitza" (%47,9k). Beste behin, "pobrezian bizi diren herritarrak /familiak" dira erdipurdiko balorazioa jasotzen dutenak: %47,6k uste du berdin mantendu dela egoera eta, oso gertu, %35,3k baloratzen du okerrera egin duela.

3.1. ASPEKTU EZBERDINEN GAUR EGUNGO EGOERA ETA LEGEGINTZALDIAN IZANDAKO BILAKAERA

EGUNGO BALORAZIOA. (%)



AZKEN 4 URTETAKO BILAKAERA. (%)



Herriko Elkarbizitza_Gaur egun

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Oso ondo	86	14,5
Ondo	423	71,5
Erdipurdi	62	10,5
Gaizki	20	3,4
Oso gaizki	1	0,1
Guztira	592	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Kulturen arteko elkarbizitza_Gaur egun

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Oso ondo	68	11,9
Ondo	381	66,4
Erdipurdi	95	16,7
Gaizki	24	4,1
Oso gaizki	5	1,0
Guztira	573	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Herriko bizi kalitatea orkorrean_Gaur egun

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Oso ondo	70	11,9
Ondo	408	68,7
Erdipurdi	99	16,7
Gaizki	14	2,3
Oso gaizki	2	0,4
Guztira	593	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Pobrezian bizi diren herritarrak/ familiak_Gaur egun

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Oso ondo	1	0,3
Ondo	150	29,0
Erdipurdi	226	43,6
Gaizki	123	23,8
Oso gaizki	18	3,4
Guztira	519	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Herriko elkarbizitza_Azken lau urteetan

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Hobera	277	47,9
Berdin mantendu da	201	34,7
Okerrera	101	17,4
Guztira	579	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Kulturen arteko elkarbizitza_Azken lau urteetan

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Hobera	303	53,7
Berdin mantendu da	182	32,3
Okerrera	79	14,0
Guztira	564	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Herriko bizi kalitatea orkorrean_Azken lau urteetan

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Hobera	277	48,4
Berdin mantendu da	227	39,7
Okerrera	68	11,9
Guztira	572	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Pobrezian bizi diren herritarrak/ familiak_Azken lau urteetan

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Hobera	86	17,1
Berdin mantendu da	238	47,6
Okerrera	177	35,3
Guztira	500	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

4. UDAL GOBERNUA: BERE LANAREN BALORAZIOA

Udalaren inguruko iritzia, oro har, nahiko positiboa da. %30ek uste du "Errenteriako arazoak konpontzen ari dela", eta beste %38,3k berriz "badakiela nola konpondu Errenteriako arazoak, baina denbora gehiago behar duela. Bi aukerak batuta, ia hamar herritarretik zazpik ez du iritzi negatiborik udalarekiko.

Oposizioaren kasuan, aldiz, iritziak banatuago daude. Parez pare daude oposizioak "Errenteriako arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen duela" irizten dutenak (%31,2) eta "Udal Gobernuari kritika eta oztopoak jartzen dizkiola" uste dutenak (%31,5). Hala ere, galdera honetan talderik handiena ezer erantzuten ez dutenena da (%37,3).

Gai zehatz batzuei aitortzen zaien garrantzia mailari begiratuta, garrantziarik handiena "gizon eta emakumeen berdintasunari" aitortzen zaio (8,8ko batez bestekoarekin, %77,6k 8 eta 10 arteko garrantzia maila aitortu dio 0-10eko eskala batean). Bigarren lekuan, "diru publikoaren kudeaketa" dator, 8,5eko batez bestekoarekin eta %73,5en kasuan 8 eta 10 arteko balio bat emanda. Hirugarren lekuan eta 8ko batez bestekoa gainditzen duten azken kasu moduan, parez pare daude "kale garbiketa" eta "enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapena". Batez bestekoa berdina baldin badute ere, "kale garbiketaren" kasuan garrantzia handia (8 eta 10 artekoa) aitortu dioten pertsonen kopurua zerbait handiagoa da (%74,3, bestearen %68,3ren aurrean). "Enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapenaren" kasuan, garrantzia txikia aitortzen dion jende kopurua handiagoa da (%12,4) eta baita erantzuten ez duena ere (%8,1).

Kontrako perspektiban jarrita, garrantziarik gutxien "zure auzoak udaletik jasotzen duen arretak" du (7,6ko batez bestekoa), ondoren "administrazio hurbilago bat sortzeak herritarrekiko / demokratizazioa" (7,7ko batez bestekoa), eta hirugarren gelditzen dira, batez besteko berarekin, "mugikortasuna / oztopo arkitektonikoak murriztea" eta "gazte politika" (7,8ko batez bestekoa). Gazte politikaren kasuan, batez bestekoari erreparatuta garrantzia-maila baxuenetik urruti samar gelditzen bada ere, bera da inkestatu guztien artean garrantzia handia duela gutxienek esan duten aldagaia. Horren arrazoia erantzunik ezaren tasa altuan dago: hau da, gaiarekiko iritzi bat dutenek garrantzia handia aitortzen diote, baina ez da herritar guztiengana iristen (edo ez dute iritzia adierazi, behintzat).

Gai horietan Udalak egin duen kudeaketari erreparatuta, batez bestekorik onena "gizon eta emakumeen arteko berdintasunak" lortzen du (7,3), "kale garbiketaz" jarraituta (6,8). 8 eta 10 bitartean puntuatutako kopuru edo portzentaiari erreparatuta, aldiz, bi horien arteko ordena aldatzen da: kale garbiketa "ondo" baloratu dute (8 eta 10 artean puntuatuta) inkestatuen %43,7k, eta "gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, aldiz, %39,9k.

Batez bestekoak aztertzen jarraituz, segidan bi berdinketa datoz. 6,6ko batez bestekoa lortzen dute "diru publikoaren kudeaketak" eta "administrazio hurbilago bat sortzeak herritarrekiko / demokratizazioak"; ehunekoei erreparatuta ere emaitza antzekoak dituzte ("diru publikoaren kudeaketan" balorazio zertxobait hobea egiten bada ere). Bigarren berdinketa "mugikortasuna / oztopo arkitektonikoak murriztea" eta "gazte politikaren" kasuan gertatzen da (6,3ko batez bestekoa). Alabaina, garrantziarekin gertatzen zen moduan, "mugikortasuna / oztopo arkitektonikoak murrizteak" jasotzen duen balorazio positibo kopurua ehunekotan askoz handiagoa da "gazte politikak" jasotzen duenarekiko: lehenengoaren kasuan, inkestatuen %33,2k 8 eta 10 arteko puntuazioa ematen diote; eta bigarrenaren kasuan %20k soilik. Aurreko aldi bezala, batez bestekoa berdina izatearen arrazoia da gazte politikan askoz jende gehiago kokatu dela "ez dakit-erantzunik ez" aukeran. Baloraziorik kaskarrena, aldiz, "enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapenak" jasotzen du (5,9ko batez bestekoa).

Hain justu, garrantzia mailari eta udal gestioaren balorazioari emandako batez bestekoak elkarren artean konparatzen baditugu, nabarmena da distantziarik handiena "enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapenean" dagoela (2,5 puntuko aldea). Bigarren lekuan gelditzen da "diru publikoaren gestioa", 1,9 puntuko aldearekin bi batez bestekoen artean. Bi kasuetan, garrantzia handi samarra aitortzen zaien gaiak dira. Aldiz, bi balorazioak elkarrekiko gertuen gelditzen diren kasua "administrazio hurbilago bat sortzea herritarrekiko / demokratizazioa" da; hala ere, kontuan izan behar da beste itemekiko konparatuta ez zaiola oso garrantzia maila altua aitortzen gai honi ("zure auzoak udaletik jasotzen duen arretak" soilik du garrantzia maila txikiagoa batez beste).

Udal gobernuari zuzendutako atala amaitzeko, inkestatuei eskatu zaie udal gobernuaren baloratzeko hainbat ezaugarriren baitan: herritarren arazoekiko hurbiltasuna, gestiorako gaitasuna, zintzotasuna, akordioak lortzeko gaitasuna eta lidergoa izateko gaitasuna, 0 eta 10 bitarteko eskala batean.

Balorazio ona egiten duten talderik handiena "herritarren arazoekiko hurbiltasuna" eta "zintzotasuna" aldagaiei dagokienez ikus daiteke (8 eta 10 bitartekoa) egiten duen talderik handiena, %35,9 eta %35eko ehunekoekin hurrenez hurren (kontuan izan behar da "herritarren arazoekiko hurbiltasuna" dela balorazio txarrik handiena jaso duen aldagaia, aldi berean). "Gestiorako gaitasunaren" kasuan, nahiko adostasun adierazten den arren, muturrik positiboena txikiagoa da (%29,8) eta erdigunean kokatzen da jendea gehiago (%34,2k erdipurdiko balorazioa egiten dute, 6 eta 7koa). Azkenik, "lidergoa izateko gaitasuna" eta "akordioak lortzeko gaitasuna" izan dira balorazio positiboak gutxien jaso dituztenak, hurrenkera horretan. Era berean, kontuan hartzekoa da bi hauek direla erantzun-tasa txikiena izan dutenak ere, "ez dakit-erantzunik ez" aukera laurdenetik gora kokatzen baita (%24,9 "lidergoa izateko gaitasunean" eta %30,9 akordioak lortzeko gaitasunean").


Udal gobernuaren balorazioa egiteko eskatuz gero, modu orokorrean hartuta, inkestatuen %64,9k 8 eta 10 bitarteko balorazioa ematen dio. Taldeak beste modu batera osatuta, berriz, %18,2k ematen dio 0 eta 5 bitartean, %43,3k 6 eta 7 bitartean eta %38,5ek 8 eta 10 artean. Batez besteko puntuazioa 6,8 da.

4.1. UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIA

Ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto Udalari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Errenteriako arazoak konpontzen ari da	180	30,0
Badaki nola konpondu Errenteriako arazoak, baina denbora gehiago behar du	230	38,3
Ez daki nola konpondu Errenteriako arazoak	116	19,3
Herriko arazo nagusiak konpontzea udalaren eskumenetatik kanpo dago	18	3,0
ED-EE	56	9,3
Guztira	600	100,0


Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."




Eta oposizioari buruz duzuna?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Errenteriako arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen du	187	31,2
Udal Gobernuari kritika eta oztopoak jartzen dizkio	189	31,5
ED-EE	224	37,3
Guztira	600	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."



4.2. HERRITARREK HAINBAT GAIRI ZEIN GARRANTZIA MAILA EMATEN DIOTEN



Diru publikoaren kudeaketa

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Garrantzia handia	224	73,8
Garrantzia ertaina	35	13,5
Garrantzia txikia	5	8,2
ED-EE	12	4,5
Guztira	277	100,0
Batez bestekoa	8,5	

Iturria: Aztiker, "Erreneriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Zure auzoak udaletik jasotzen duen arreta

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Garrantzia handia	249	57,7
Garrantzia ertaina	61	27,9
Garrantzia txikia	13	13,5
ED-EE	3	0,9
Guztira	325	100,0
Batez bestekoa	7,6	

Iturria: Aztiker, "Erreneriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Gazte politika

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Garrantzia handia	180	51,6
Garrantzia ertaina	47	18,9
Garrantzia txikia	9	15,0
ED-EE	40	14,5
Guztira	277	100,0
Batez bestekoa	7,8	

Iturria: Aztiker, "Erreneriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Mugikortasuna / oztopo arkitektonikoak murriztea

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Garrantzia handia	252	63,6
Garrantzia ertaina	50	20,0
Garrantzia txikia	14	13,7
ED-EE	9	2,6
Guztira	325	100,0
Batez bestekoa	7,8	

Iturria: Aztiker, "Erreneriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Enplegu eta jardura ekonomikoaren sustapena

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Garrantzia handia	210	68,3
Garrantzia ertaina	36	11,3
Garrantzia txikia	8	12,4
ED-EE	22	8,1
Guztira	277	100,0
Batez bestekoa	8,3	

Iturria: Aztiker, "Erreneriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Kale garbiketa

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Garrantzia handia	287	74,3
Garrantzia ertaina	32	18,7
Garrantzia txikia	4	6,1
ED-EE	3	0,9
Guztira	325	100,0
Batez bestekoa	8,3	

Iturria: Aztiker, "Erreneriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Garrantzia handia	235	77,6
Garrantzia ertaina	23	9,8
Garrantzia txikia	5	7,3
ED-EE	14	5,2
Guztira	277	100,0
Batez bestekoa	8,8	


Iturria: Aztiker, "Erreneriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Administrazio hurbilago bat sortzea herritarrarekiko / desburokratizazioa

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Garrantzia handia	233	55,5
Garrantzia ertaina	55	23,5
Garrantzia txikia	7	11,6
ED-EE	30	9,3
Guztira	325	100,0
Batez bestekoa	7,7	

Iturria: Aztiker, "Erreneriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

4.3. UDAL GOBERNUA GAI HORIETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN



Diru publikoaren kudeaketa

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona	123	27,2
Erdipurdiko balorazioa	70	31,8
Balorazio txarra	14	15,9
ED-EE	69	25,0
Guztira	276	100,0
Batez bestekoa	6,6	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Zure auzoak udaletik jasotzen duen arreta

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona	163	31,4
Erdipurdiko balorazioa	105	33,1
Balorazio txarra	37	29,1
ED-EE	21	6,4
Guztira	325	100,0
Batez bestekoa	6,3	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Gazte politika

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona	104	20,0
Erdipurdiko balorazioa	64	27,3
Balorazio txarra	11	17,6
ED-EE	97	35,1
Guztira	277	100,0
Batez bestekoa	6,4	

Mugikortasuna / oztopo arkitektonikoak murriztea

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona	167	33,2
Erdipurdiko balorazioa	107	33,3
Balorazio txarra	29	26,5
ED-EE	23	6,9
Guztira	325	100,0
Batez bestekoa	6,4	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapena

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona	83	14,0
Erdipurdiko balorazioa	91	30,0
Balorazio txarra	23	27,2
ED-EE	80	28,7
Guztira	277	100,0
Batez bestekoa	5,9	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Kale garbiketa

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona	190	43,7
Erdipurdiko balorazioa	97	25,4
Balorazio txarra	23	26,2
ED-EE	15	4,7
Guztira	325	100,0
Batez bestekoa	6,8	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona	154	39,9
Erdipurdiko balorazioa	51	25,6
Balorazio txarra	6	10,8
ED-EE	65	23,6
Guztira	277	100,0
Batez bestekoa	7,3	


Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Administrazio hurbilago bat sortzea herritarrarekiko / desburokratizazioa


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona	146	28,9
Erdipurdiko balorazioa	90	26,3
Balorazio txarra	17	22,6
ED-EE	72	22,2
Guztira	325	100,0
Batez bestekoa	6,6	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

4.4. GARRANTZIA MAILA vs UDAL GESTIOAREN BALORAZIOA. BATEZ BESTEKOAK



4.5. UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRI BATZUEN BALORAZIOA



Herritarren arazoekiko hurbiltasuna

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona	99	35,9
Erdipurdiko balorazioa	78	28,1
Balorazio txarra	64	23,2
ED-EE	36	12,9
Guztira	277	100,0
Batez bestekoa	6,7	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Akordioak lortzeko gaitasuna

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona	78	23,9
Erdipurdiko balorazioa	97	29,9
